



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

# GORPUTZA, BERDINTASUNEZ HAZI

# 1

UNITATE  
DIDAKTIKOA

## IRAKASLEAREN GIDA 1

### Irakasle agurgarria:

Ongietorri Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako EMAKUNDEren NAHIKO! Programara. Egitasmo hau emakume eta gizonen arteko berdintasunerako hezkuntza programa da, ikasle neska eta ikasle mutilen arteko berdintasunerako. Berdintasuna eskubideetan, aukeretan, tratatzeko eran, arduetan... Berdintasuna, gure ikasle neskak eta ikasle mutilak Giza Eskubideen arabera hazteko, handitzeko, sentitzeko, ekiteko, ikasteko, erabakitze eta elkarrekin bizitzeko.

Hezkidetza programa honen azken helburua, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta sentsibilizazioa da. Indarkeria hau gizon eta emakumeen ezberdintasun estrukturalaren muturreko seinale eta ondorioa izanik, programa gure ikasleak, neskak eta mutilak, berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia-azarako hazi eta hezitzen saiatzen da. Bai neskek eta bai mutilek elkar ulertu dezaten eta beraien identitateak eta beraien arteko erlazioak sexu bakoitzari generoak ezarritako aurreiritzi eta mugarik gabe eraiki ditzaten.

Egun, emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrak eta injustizia soilik berdintasunak, Giza Eskubideen azken oinarria denak, prebenitu eta sahiestu ditzake. Soilik berdintasunerako hezitzen baditugu ahal izango dute gure ikasleek askatasunean hazi eta dituzten gaitasun guztiak garatu. Soilik berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia-azarako hezituz lortu dezakete neskek eta mutilek autonomia pertsonala, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritargorako heziketa integrala.

**Eskerrik asko zure laguntzarengatik!**

## 1 LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA: HAZI ETA IKASI, IKASI ETA HAZI, NIK AHAL DUT...

Nik ahal dut... jantzi, jan, zapatak lotu, eraman, ekarri, jarri, garbitu, korrika egin, jauzi egin, piztu, itzali, margotu, erosi, ebaki, irakurri... Nik ahal dut... pentsatu, hitz egin, zenbatu, amets egin, sentitu, aukeratu, egin, esan, isildu, kontatu, sailkatu, laburtu... Nik ahal dut... negar egin, barre egin, gozatu, sufritu, maitatu, baztertu, jo, errespetatu, talderatu, muxu eman, besarkatu, laztandu... Nik ahal dut!

Gure ikasleek lehen egin ezin zituzten gauza asko orain egin ditzaketela ikusten dute. Beraiek bakarrik eta helduen laguntzarik gabe egin ditzaketela. Horretarako jadanik handiak direla aldarrikatzen dute. Gauza berriak bakarrik ikasten, egiten, probatzen... hazten!, lagatzea eskatzen digute. Orokorrean, konfidantza handia dute euren ahalmenetan.

### **Ikasleen aurrerapenak eta ezaugarri ebolutiboak**

- Bere burua identifikatzen duten eredu heldua, gehienetan amaren edo aitaren papera betetzen duena, behatu eta imitatu.
- Sexudun pertsonak direla konturatu eta horri buruzko jakinmina.
- Elkarbizitzako arauak ikasi, bete eta onartu.
- Balioei balorea eman eta kontzientzia sortu.
- Balioek ahalmenak baldintzatzen dituzte.
- Nahien eta arauen artean niaren bitartekaritza azaltzen da.
- Benetako jolas kooperatiboa sortzen da.
- Ikaskideen arteko konpetitibitatea indartzen da.
- Jolasaren bidez jakintza fisikoa eta, batez ere, soziala eraikitzen dute. Instrumentala, ordezkagilea, elkar eraginkorra eta taldekoa da jolasa.
- Segurtasuna, segurtasun-eza, apaltasuna, konfidantza... eta antzeko emozioak.
- Beldur ebolutiboak: galtzearena, iluntasuna, mamuak, ekaitzak, animaliak, bakarrik lo egitekoa, amarena edo aitarena egiten duenarengandik aldentzea...
- Enpatia hasten da, besteen egoerak ulertzen dituzte eta beraiek sortarazten dituzten emozioetaz jabetzen dira.
- Etxeko girotik ateratzen hasten dira, lehen harreman sozialak agertzen dira.
- Gauzak ulertzeko, ikusteko, probatzeko, egiteko, ezagutzeko... jakinmina.
- Arreta, memoria, arrazonamendua, sormena, mintzamena eta umorearen garapen handia.
- Galdera-erantzun jolasak, antzekotasunak edo ezberdintasunak bilatu, gauzak elkarrekin lotu edo sailkatu, ipuinak eta mahaiko jolasak, hitz-joko eta aho-korapiloak... oso gogoko dituzte.
- Mugimendu globaletik mugimendu zehatzetara pasatzen dira. Gorpuzkeraren eta arnasketaren kontrola. Gorputzaren mugimendu jolasak.
- Lateralitatea eta gorputz eskema finkatzen da.

**Sei unitate didaktiko:**

“Nik ahal dut” horren indartzean laburtu eta ordezkatu ditugu hezkuntza etapa honen ezaugarriak. Horregatik Lehen Hezkuntzako 1-2 ikasmailako Nahiko! programak lan-ardatz nagusi bakarra du, bi oinarrizko ideia hauetaz osatzen dena: “Nik, neska edo mutila, ahal dudana” eta “Zuk, mutila edo neska, ahal duzuna”.

“Nik ahal dut” (eta zuk ahal duzu) ardatz hau, berdintasunerako heziketaren ikuspuntutik garatzen duten hiruhileko sei unitate didaktikoak ondoko hauek dira:


1. Gorputza: hazi.
2. Sentipenak: sentitu.
3. Norberaren autonomia: ekin.
4. Mugak: ikasi.
5. Borondatea: aukeratu.
6. Beste pertsonak: elkarbizitza.



## 2 GORPUTZA: NIK AHAL DUT; ZUK, MUTIL, AHAL DUZU, ZUK, NESKA, AHAL DUZU... ALA EZ?

Gorputza eta bertan nabaritzen dituzten aldaketa guztiak dira, hazten ari direla eta ahalmen berriak garatzeko duten aukeraz konturatzeko gure ikasleek duten lehen esparrua. Aurreko atalean aipatu ditugu adin honetako aldaketa esanguratsu batzuk: sexua, lateralitatea, koordinazioa, mugimendu jolasak, psikomotrizitate fina, eta abar. Gorputzarekiko jakinmina eta gorputzaren ahalmenen jabekuntza gure ikasleen ikaste prozesu osoaren oinarria dira.


**Gakoa berriz, ikasle neskek eta ikasle mutilek gorputz ahalmen berri horiek garatzeko aukera eta baldintza berberak dituzten jakitean datza.** Hots, nesken “ahal dut” hori mutilen “ahal dut” horren pareko den ala ezberdinak diren eta, horrela balitz, zergatik diren ezberdinak. Hau da, nesken “ahal dut” horrek mutilenaren **eduki eta itxaropen berberak dituen, motibazio eta onarpen sozial berbera** dituen. Neskek eta mutilek antzeko konfidantza duten euren ahalmenetan, alegia.



Eskolako eskarmentuak ez dela horrela esaten digu. Gehienetan, gizarteak, familiak eta eskolak berak uste dute neskek eta mutilek ezin dituztela ahalmen horiek era berean landu eta garatu. Beraz, neskei **semaforo gorria jartzen diegu** mutilentzat “berezkoak” eta “egokiak” deritzogun **gorputz ezaugarri, ikasketa eta garapenen aurrean** (abiadura, indarra, jausia, minaren aurkako erresistentzia, punteria...). Eta alderantziz, mutilei **semaforo gorria jartzen diegu** neskentzat “berezkoak” eta “egokiak” deritzogun **gorputz ezaugarri, ikasketa eta garapenen aurrean** (malgutasuna, oreka, kontrola, edertasuna, leuntasuna...).

## Balioa eta prestigioa:

Kholberg bezelako adituek, beren ikerketen ondorioz, **bost eta zortzi urte bitartean neskek euren gorputza hobereana dela pentsatzeari uzten diotela** baieztatu dute. Adin horretan, bai neskek eta bai mutilek, balio eta prestigio handiagoa ematen diote mutilen gorputzari. Ordurarte nagusia den balorazio egozentrikoa (neurea da hobereana) desagertu eta gizarteko balioetan oinarritutako beste balorazio hau nagusitzen da. Ondorioz, ez da soilik nesken eta mutilen “ahal dut” horiek ezberdinak direla, baizik eta balioa ezberdina dutela eta batak besteak baino gizarte onarpen eta balorazio handiagoa duela: mutilen gorputza hobeagoa da, mutilak hobereanak dira.



Nesken **baliogutxitze** honek euren ikasketen eta lorpenekiko motibazioaren, exigentzia-mailaren eta ebaluaketaren jeistea dakar. Eta baita ere, autoestimua jeistea, euren ahalmen, aukeren, gogo, nahi eta proiektu pertsonalen baliogutxitzea. Horrekin batera, mutilen ahalmen, aukeren, gogo eta proiektuekiko miresmen eta menpekotasuna.

Modu honetan, **neskentzat hazteko eredu eta bide bat definitzen da eta beste bat, ezberdina eta baliotsuagoa, mutilentzat**. “Neska izateko” era bat eta “mutila izateko” beste bat eraikitzen dira, ezberdinak bere edukietan (euren identitate eta bizimoduan) eta gizarte balio eta estatus ierarkizatuekin (euren roletan eta euren familiarteko, laneko, gizarteko eta politikako harremanetan).



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



# GORPUTZA, BERDINTASUNEZ HAZI

**1** UNITATE  
DIDAKTIKOA

## IRAKASLEAREN GIDA 2

### 3 HELBURUA: GUK, NESKEK ETA MUTILEK, AHAL DUGU; HAI EK, NESKEK ETA MUTILEK, AHAL DUTE

Programaren helburua orokorrean, eta unitate honena zehazki, hau lortzea da: nesken “ahal dut” horrek, mutilen “ahal dut” horrek dituen aukera eta baldintza berberak, itxaropen eta laguntza berberak, errespetu eta balio berberak edukitzea.

Lehenengo unitateak, zehazki, hau lortu nahi du: **ikasle neskek eta ikasle mutilek neskak baloratu ditzatela, horretarako, lehenik, euren gorputzak**, euren ezaugarri eta ahalmenak, euren ikasketa eta lorpenak baloratu ditzatela, mutilenei ematen dieten balio bera emanaz.

**Ikasle neskengan autoestimua handiagoa eta ikasle mutilengan errespetu handiagoa** lortu nahi dugu, batzuek eta besteek ez dezatela pentsa neskak, eta euren gorputzek, mutilak baino gutxiago balio eta ahal dutenik.

Gure ikasleak, nahiz neskak nahiz mutilak, gorputz garapen eta ikasketa fisiko integrala eta orekaturako hezitu nahi ditugu.

#### Semaforo berdeak neska eta mutilentzat:

Nahiko! programako logoak eta ikaslearen eta familiaren koadernoko aurkezpen testuak adierazten duten moduan, **programa honek semaforo berdeak piztu nahi ditu ikasle neska eta mutilentzat.**

Programak hau lortu nahi du: ikasle neska-mutilek gizartean sexu bakoitzari jartzen zaizkion semaforo gorriak aurkitu, aztertu eta itzali ditzatela.



**Aurkitu, aztertu eta aldatu** ditzatela mutilek, mutilak izateagatik, euren gorputzekin egin "ezin" dituzten gauzak (negar egin, besarkatu, laztandu, dantza egin, ukitu...). Aurkitu, aztertu eta aldatu ditzatela neskek, neskak izateagatik, euren gorputzekin egin "ezin" dituzten gauzak (jauzi egin, txutatu, jaurti, lurretik irristatu, oihukatu...). Semaforo gorriak ikusten eta aurkitzen ikasi dezatela, itzali eta bere ordeztu semaforo berdea pizteko.

**Semaforo gorriek** gure ikasle nesken autoestimua deusezten duen balorazio ezkorren sarea osatzen dute (neskek ez dute balio, okerragoak dira, ez dakite, ez zaie gustatzen, ez da berea, berdin du nola egiten duten, eta abar) eta mutilen autoestimua puzten dute arduragabeki (odolean daramate, berezkoa dute, beti irabazi nahi dute, nahi dutenean onenak dira, interesa dutenean bikainak dira...).

Semaforo gorri hauek, maiz, **txikiak dira eta, egunerokoak eta arruntak direnez, oharkabeak** guztiontzat. Sarritan, ohartu gabe piztu edo mantentzen ditugu, inkontzienteki, ohituraren eta inertiaren poderioz. Nahita egin behar den ahalegin eta trebakuntza berezi bat eskatzen du lehen ikusten ez genuena ikusteak, lehen balioa ematen ez genion zeozerrri orain balioa ematen hasteak.

### **Unitatearen helburu zehatzak:**

- Gure ikasle neskek eta mutilek euren gorputzei buruz, eta ondorioz eurei buruz, duten **pertzepzioa, onarpena eta balorazioa ezagutu.**
- Neskek eta mutilek euren gorputzen ahalmen eta aukerei buruz duten ezagutzan eta balorazioan **ezberdintasunak dauden ala ez aztertu.**
- **Ikasle neskek** euren gorputzari buruz eta mutilen gorputzei buruz **barneratuta dituzten semaforo gorriak identifikatu**, aztertu eta aldatu.
- **Ikasle mutilek** euren gorputzari buruz eta nesken gorputzei buruz **barneratuta dituzten semaforo gorriak identifikatu**, aztertu eta aldatu.
- **Ikasle neskek** euren gorputzari buruz eta mutilen gorputzei buruz **barneratuta dituzten semaforo berdeak identifikatu**, aztertu eta edozein mutil edo neskentzako balio dutela landu.
- **Ikasle mutilek** euren gorputzari buruz eta nesken gorputzei buruz **barneratuta dituzten semaforo berdeak identifikatu**, aztertu eta edozein mutil edo neskentzako balio dutela landu.
- **Norberaren "ahal dut" bat eraiki, bakoitzaren gorputzetik** eta bere ahalmenetik abiatuz eta ez mutila edo neska izatetik.

## 4 UNITATEKO MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honetako materialak hauek dira:

1. "Luze eta Txiki" ipuina.
2. "Gorputzaren altxorra" mahai jolasa.
3. Ikaslearen koaderno.
4. Familiaren koaderno.

Lehendabiziko bi materialak, **ipuina eta jolasa**, koaderno biak baino lehenago erabili behar dira. Material hauek ikasleek, jolastuz, egoera ezberdinak esperimentatu, sentitu eta bizitzeko dira, galderak, hausnarketak, elkarrizketak, eztabaidak... piztu ditzaketen egoerak hain zuzen. Beraien eginbeharra eguneroko bizipen eta errealitate ohartugabeak argipean eta mahai gainean jartzea da, berdintasunaren eta giza eskubideen begiradapean esplizitatu eta aztertzeko.



**Koadernoak**, berriz, bizipen, eztabaida eta hausnarketak laburtzeko eta barneratzeko tresnak dira, eskolan egindako lana sendotu, finkatu eta familia giroan zabaltzeko. **Ikaslearen koaderno**a ikasgelan landu eta egiteko da. Irakasleak talde handian edo talde txikietan aurkeztu, azaldu eta landu beharko du lehenengo, gero ikasle bakoitzak berea bete dezan.

**Familiaren koaderno**a unitatea bukatzen ari denean bidali behar da etxera, hiruhileko bukaera aldera. Irakasleak aurkeztu eta, etxeko laguntzarekin zer egin beharko duten azaldu beharko die ikasleei koaderno bidali aurretik. Koadernoak ez du ondo egina berriro ekarri behar den ohizko etxekolana izan nahi. Eskolan egin den lana familian ezagutu, hitz egin, hausnartu eta sendotzeko gonbidapena izan nahi du.



## 5 “LUZE ETA TXIKI” IPUINA

Unitate didaktikoaren CD-Romean dago. Erabilera metodologiko ezberdinak egin ahal **izateko ondorengo formato eta artxiboetan aurkezten da:**

1. Audioa. Iraupena: 09:37 minutu.
2. Ipuina osorik. Power Point aurkezpena: irudiak, marrazkiak, audioarekin lotuta testurik gabe. Paso automatikoa. Iraupena: 10 minutu.
3. Ipuinaren irudiak. Power Point aurkezpena irudiekin bakarrik, audio eta testurik gabe. Eskuz pasa behar da.
4. Irudiak testu laburrarekin. Power Point aurkezpena irudi eta testu laburtuarekin, audiorik gabe. Eskuz pasa behar da.
5. Irudiak, testurik gabe. Inprimatzeko PDFa.
6. Irudiak testu laburrarekin. Inprimatzeko PDFa.
7. Irudiak testu osoarekin. Inprimatzeko PDFa.



Ipuinak neska eta mutil baten abentura kontatzen du, euren ezaugarri fisikoengatik Luze eta Txiki izenekoak. Protagonista biak **gure ikasleen adineko ikaskide talde baten partaide dira**, programako sei unitate didaktikoetan zehar gurekin egongo direnak.

Lehendabiziko ipuin honek, eta beste bost unitate didaktikoez, adin honetako neska-mutilei gustatzen zaien estilo narratiboa jaso nahi dute: akzioa, misterioa, errepikapenak, hitz-jokoak, umorea, errimak, kanta... Horregatik, ipuin bakoitzean **funtzio nagusia betetzen duen kanta bat** dago, pertsonaiak, ipuina eta unitatearen gaia laburtzen duen kanta bat.

### Helburuak:

Ipuina **Berdinland** izeneko herrialdean gertatzen da, gizon eta emakumeen berdintasunaren ikuspegitik eredu positiboak (semaforo berdeak) eskeiniko dizkigun herrialdea. Maiz, gure inguruko ohizko egoera estereotipatuaren alternatiba izango diren egoerak eta ereduak izango dira. Adibidez, lehen ipuin honetan: neska altu eta indartsu bat, mutil txiki bat, neska lider bat, lehen mailako maisu bat, eskolako zuzendari emakumea, kamioi gidaria den suhiltzaile emakume bat, suhiltzaileburu emakume bat, telebista kamaragile emakume bat...

Unitate honetako ipuinak **gorputz ezaugarri oso ezberdinak dituzten eta, hala ere, oso lagun handiak diren neska eta mutil baten istorioa** kontatzen du. Biak pozik daude duten gorputzarekin eta gorputz horien aukera, zailtasun eta ahalmenekin. Bestalde, bai neskak eta bai mutilak besteren gorputza eta ahalmenak onartu eta errespetatzen ditu, balio ona emanaz euren arteko ezberdintasunari. Biek, eta bere lagun neska eta mutil guztiek, ezberdintasun hori ona dela eta aberastasun bat izan daitekela uste dute. Bakoitzak eduki ditzakeen zailtasun pertsonal puntualen gaineratik taldearentzat, gizartearentzat, abantaila bat dela. Ipuinaren istorioan baieztatuta geratuko den aberastasun eta abantaila bat.





**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

**GORPUTZA,  
BERDINTASUNEZ  
HAZI**

**1**

UNITATE  
DIDAKTIKOA

## IRAKASLEAREN GIDA 3

**Ipuinean aurkezten den gorputzen pertzepzio ereduak eta bien arteko harreman ereduak** ikasleen artean alternatibaren aukera zabaldu nahi du, neska eta mutilen gorputzen konparaketa-eza eta gutxieste-ezaren semaforo berdearena. Pertsonaiek direnetik abiatuz elkar ikusten, onartzen eta ekiten dute, ez neska izateko eredutik eta mutil izateko eredutik. Ez dira konparaketa, gabezia eta trufatik abiatzen bizitzeko eta harremanak izateko, autoestimua, onarpena eta errespetutik baizik. Nork bere eta besteen ezaugarri, zailtasunak eta ahalmenak ezagutuz, onartuz eta balioa emanez.

### **Ariketak:**

Ordena hau jarraituz landu daiteke ipuina:

1. Audioa entzun eta ahozko ulermena landu.
2. Ipuin osoarekin, irudiak eta audioa dituen aurkezpenarekin, ulermena eta mintzamena landu.
3. Soilik irudiak dituen aurkezpena eta PDFarekin dendoralizazioak eta ahozko kontaketa landu.
4. Irakurmena eta idazmena landu testuak eta irudiak dituzten aurkezpen eta PDF-ekin, neskamutilen mailaren arabera testu osoa edo laburtua erabiliz.

Ariketa guzti hauek **berdintasunaren ikuspegitik sakondu** beharko lirateke, ondorengo galderen antzekoak eginez:

- Zer egiten zaie arraro, zer gustatu zaie gehien edo gutxien, zer iruditu zaie euren errealitatetik oso urruti, zer da sinesgarria, zer da sinesgaitza, zergatik, eta abar.
- Horrelako neskak al daude? Zergatik? Eta horrelako mutilak? Zergatik? Gure harremanak horrelakoak dira? Horrela tratatzen dugu elkar? Zergatik? Aldatu daiteke hori?
- Zergatik egiten du hori? Mutila delako? Neska delako? Neska guztiak horrelakoak dira? Ez daude neska ezberdinak? Mutil guztiek berdin jokutzen dute? Ez daude mutil ezberdinak? Zergatik?



### 1. Ipuinaren audioa entzun eta...:

- Ipuinari, pertsonaiei, istorioari, erreakzioei, elkarrizketei, lekuei... buruz galderak egin.
- Gure inguruan antzeko pertsonak bilatu. Euren gorputzen ezaugarriak eta ahalmenak aztertu.
- Ipuinaren istorioa laburtu. Istorio osoa kontatu. Ipuina antzeztu.
- Kanta ikasi. Dantza bat asmatu kantari. Hitzak aldatu. Beste zati bat asmatu.

### 2. Ipuina osorik (irudiak eta audioa) ikusi eta entzun eta, aurreko atalekoaz gain:

- Pertsonaiak deskribatu, marraztu, imitatu, antzeztu. Pertsonai bat aukeratu eta berak bezala jokatu denbora batez. Pertsonai bat aukeratu eta besteek berari elkarrizketa egin.
- Gehien gustatu, harritu, desatsegindu... dituen zatia kontatu, marraztu, antzeztu... eta esan zergatik.

### 3. Erabili testurik eta audiorik gabeko irudien aurkezpena edo PDFa inprimatu eta...:

- Irudiak arbelean kokatu ipuinaren ordena jarraituz. Irudiren bat edo batzuk kendu eta istorioa berregin dezatela.
- Irudiak jarraituz istorioa ozenki kontatu.
- Irudiak nahastu eta ikasleen artean banatu ondoren, bakoitzak berea erakutsi eta bere zatia kontatu dezala bere txanda dela uste duenean.
- Beste ordena batean kokatu eta beste istorio bat kontatu. Ipuin originalarekin alderatu.
- Marrazkiak neurri txikian eman, beraiek ebaki eta itsatsiz komikia egin dezaten.

### 4. Testua duten irudiekin irakurketa eta idazketa:


- Irakurri, hitzak azpimarratu, zatiak buruz ikasi, kopian, esaldietan hutsuneak bete hitz egokia erabiliz, laburtu, sinonimoak bilatu, antonimoak, errimak, onomatopoiak, eta abar.

## 6

## “GORPUTZAREN ALTXORRA” MAHAI JOLASA

Dominoaren antzeko dinamika duen mahai jolasa da. Osagai hauek ditu:

- **Lau (4) karta edo kateto baraja ezberdin.** Ikasleekin jolasteko lau talde egin ahal izateko. Jolas saio ezberdinetan baraja (eduki) ezberdinekin jolastu ahal izateko.
- Baraja bakoitza bereizteko, karten atzekaldean kolore ezberdineko bost biribil eta zenbaki bat dago: 1 berdea, 2 urdina, 3 horia eta 4 arrosa.
- **Baraja bakoitzak berrogei (40) karta** ezberdin ditu, zortzi (8) kartetako bost (5) familia edo multzokoak. Aurrekaldetik berriz, familia bakoitzeko karta bakoitzak 1etik 8ra zenbakia darama baraja horren koloreko biribilean.

**Helburuak:**

Baraja bakoitzeko bost karta-familiak hauek dira:

- Zortzi pertsonai: arraza eta gorputz ezaugarri ezberdinak dituzten lau neska eta lau mutil.
- Zortzi marrazki gorputzaren funtzioak adierazteko: jauzi egin, barre egin, txistu egin, eta abar.
- Zortzi marrazki gorputz atalak irudikatzeke: hankak, eskua, alua, zakila, bihotza, burmuina, eta abar.
- Zortzi marrazki gorputzaren egin daitezkeen hainbat ekintza adierazteko: konsolarekin jolastu, panpinekin jolastu, animalia bat zaindu, landare bat ureztatu, eta abar.
- Zortzi hitz gorputzaren ahalmenak adierazteko: adimena, sormena, indarra, oreka, malgutasuna, eta abar.

Helburu nagusia hauxe da: ikasleek zein ahalmen, funtzio eta ekintza lotzen dituzten nesken gorputzekin eta mutilen gorputzekin ikusi, aztertu eta **karta-familia hauen zein karta diren euren artean lotugarriak edo egokiak, zeintzuk ez, eta zergatik eztabaidatzea:**

- Egokia da pertsonai mutil bat “sentsibilitatea” hitza duen kartarekin edo musu ematearen, abere bat edo landare bat zaintzearen marrazkiarekin lotzea? Zergatik?
- Eta neska bat “ausardia” hitzarekin, lasterketa batean lehiatzearen edo puskar bat botatzearen marrazkiarekin? Zergatik bai? Zergatik ez?

Proposatzen den mekanikarekin **jolasten hasi aurretik**, kartak eta beren edukiak ondo ezagutzea komendagarria da, familiaka sailkatu, ulertzen ez diren hitzak azaldu, marrazkien esanahia argitu, eta abar.

### Jolas arauak:

- Jolasaren helburua hauxe da: jokalaria guztien artean, dominoan bezala egiten joango den katean **karta guztiak jarri** ahal izatea.
- Kartak ondo nahasi eta **lau karta** banatu jokalaria bakoitzari.
- Eskubiko jokalaria hasten da pertsonai baten karta jarritz, nahiz neska nahiz mutilena.
- Txandaren arabera, jokalaria bakoitzak karta bat jarri behar du egiten ari den karta-katearen muturretan, beti ere **azken karta horren familiakoa ez den karta bat**. Hots, ezin dira bi pertsonai edo bi hitz eta abar elkarren ondoan jarri.
- Karta bakar bat jarri daiteke txanda bakoitzean.
- Karta bat beste baten ondoan jarri ahal izateko bien artean **lotura egokia** egon behar du. Adibidez, begiaren marrazkia, beste aukera askoren artean, hauen ondoan jarri ahal izango da: pertsonai baten karta, neska naiz mutila, ordenagailuaren karta, "zehaztasuna" hitzaren karta eta negar egiterena.
- **Kartak elkarren artean lotzeko egokitasunean datza jolasaren mamia**: jartzen al dute mutil bat panpinekin jolasteko marrazkiaren ondoan? Jartzen al dute neska bat "indarra" hitzaren ondoan? Lotzen al dute burmuina eta erosketak egiteko marrazkia? Eta abar, eta abar.
- **Pertsonaien karten lau alboetan jar daitezke karta berriak**. Hots, dauden kateari kate perpendikularrak zabaltzeko aukera ematen dute.
- **Beste karta guztiek** ez dute aukera hau ematen. Soilik bi alboetan jar daitezke kartak. Soilik karta katea luzatzeko balio dute.
- Jokalari batek eskuan dituen kartak katean jarri ezin dituztenean, "**paso**" esan, geratzen den karta multzotik beste karta bat hartuko du eta jartzeko txanda hurrengo jokalariairena izango da.
- Jokalari batek **bere karta guztiak** jartzen duenean, karta bat hartuko du hurrengo txanda jolasean jarraitzeko.
- Mahaiko **karta guztiak bukatzen direnean**, jokalariek eskuetan dituzten karta guztiak jaso, nahasi eta jokalaria guztien artean banatuko dira.
- Taldeak karta guztiak jartzea lortzen badu, jolasa irabazi du. Karta batzuk jarri gabe geratzen badira, galdu egin du. Edozein kasutan, **jolasa aztertu beharko dute**: ondo edo gaizki jolastu duten, karta batzuk zailagoak edo errazago diren jartzen eta zergatik, eta abar.

